

**INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK  
ATERATAKO BIKTIMEN ARTATZERAKO  
ESKU HARTZE ETA ERAKUNDEEN  
ARTEKO KOORDINAZIO PROTOKOLOA**

**Andoaino Udala**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN ELISKAL ERAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

*2018ko apirila*

## Edukiak

<b>SARRERA</b> .....	2
<b>1. ZIOEN AZALPENA</b> .....	5
<b>2. AKORDIOAK</b> .....	8
3. MARKO LEGALA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK.....	11
<b>4. MARKO KONTZEPTUALA, TERMINOLOGIKOA ETA ESKU-HARTZE PRINTZIOPIOAK</b> .....	15
<b>4.1. Terminologiak eta baliokideak</b> .....	15
<b>4.2. Esku-hartzea ahalduzte eta erreparazio ikuspegitik</b> .....	19
<b>4.2.1. Esku-hartze indibiduala</b> .....	20
<b>4.2.2. Esku-hartze kolektiboa</b> .....	22
<b>4.2.3. Esku-hartze publikoa</b> .....	23
<b>4.3. Printzipio gidariak</b> .....	24
<b>5. INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUME BIKTIMAK ETA ADINGABEAK</b> .....	26
<b>6. INDARKERIA MATXISTA KASUEN AURREAN DAUDEN PROZEDURAK ANDOAINEN</b> .....	28
<b>6.1. Emakumeen eta adingabeen sarbideak</b> .....	28
<b>6.2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiten duten arreta, bideratze eta koordinazio prozedura</b> .....	29
<b>6.3. Ertzaintza eta Udaltzaingoaren arteko arreta, bideratze eta koordinazio prozedurak</b> .....	33
<b>6.4. Osasun zerbitzuetako artatze, bideratze eta koordinazio prozedurak</b> .....	37
<b>6.5. Hezkuntza zentroetako artatze, bideratze eta koordinazio prozedurak</b> .....	39
<b>6.6. Berdintasun Arloko prozedurak</b> .....	42
<b>7. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO MEKANISMOAK</b> .....	44
<b>7.1. Kideak</b> .....	44
<b>7.2. Funtzioak</b> .....	45
<b>7.3. Aldizkakotasuna eta deialdia</b> .....	46
1. ERANSKINA: FORU ETA ERKIDEGOKO BALIABIDEAK.....	47
2. ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA INFORMATZEKO AKTA. ERTZAINZA.....	49
3. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUN AKTA.....	50

## SARRERA

Andoaingo Udalak 2017an zehar ANDOAINGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO bat garatu du. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA. Tresna honek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren udal prebentzio politikak berrikusteko eta genero indarkeria egoerei aurre egiten dieten emakume biktima zein beraien seme-alabekin zerbitzu publikoen artatze eta esku-hartze sistema berrikusteko balio izan du.

Dokumentuan zehar **biktima** kontzeptua emakumeen aurkako indarkeria eta etxeke indarkeria aurreikusi eta borrokatzeko europar Hitzarmenak definitzen duen zentzuan erabiliko dugu (**Istanbulgo Hitzarmena**), 2011koa dena<sup>1</sup> eta Estatu espainolak 2014ko abuztuan berretsitakoa.

*Biktima da bere giza eskubideen urraketa bat sufritzen duen eta jasaten dituen indarkeria ekintzak generoan oinarritzen diren pertsona fisiko oro. Ekintza hauek emakumeei ondorengoak eragiten dizkiete edo eragin ahal dizkie: izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak nahiz pairamenak, ekintza hauek gauzatzearen mehatxuak, hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne.*

Aurrerago alderdi terminologiko eta kontzeptualei buruzko atal bat garatuko dugun arren, Akordio honen hasieratik nabarmendu nahi genuke nagusiki emakumeei eragiten dien indarkeria honen biktima izaera bere giza eskubideen urraketa bat dela, eta ez diola pertsonak berez dituen ahultasun edo zaugarritasun baldintzei erreferentziarik egiten. Biztanleriaren sektore konkretu batzuei ahultasuna edo zaugarritasuna sortzen dien gizarte baldintzak badaudela onartzen dugu, eremu askotan errepikatzen den forma anitzeko indarkeria honetatik bizirik ateratzen direnengan erresistentzia gaitasuna sortzen den moduan.

Diagnostikoak genero indarkeriaren eta etxeke indarkeriaren ezaugarrien kontaketa bat egin zuen, estatu mailan indarrean dagoen legedian ulertzen diren moduan, eta modu parte hartzailean burutu zen herriko biktimen artatzeko zerbitzuetako pertsonal teknikoarekin. Adostasun handiarekin *artatze integraleko eredu* bat sortzeko beharrezana azpimarratu zen, tartean dauden baliabide eta instituzio guztien arteko koordinazioa hobetzeko. Honen helburua emakumeen aurkako indarkeria

---

<sup>1</sup> Europako lehen tresna juridiko loteslea emakumeen aurkako genero eta etxeke indarkeriaren gaian.

matxistaren analisi marko bateratu bat edukitzea izanik, era berean bideratze eta jarraipen mekanismoak azkartzea ahalbidetuko lukeena.

Diagnostikoa elaboratzeko orduan egin bezala, protokolo honetan ere prozesu parte hartzaile bat egin da non parte hartu duten entitateen esku-hartze metodologiak, koordinazio beharrianak eta hobetze proposamenak partekatu diren, dokumentu honetara barneratu direlarik.

Azkenik, nahiz eta azken urte hauetan Gizarte Eskubideen nazioarteko eskubideak eta eskubide humanitarioak emakumeen eskubide espezifikoetan eta generoaren justizian aurrerapausoak egin, hobekuntza hauek ez dute instantzia exekutibo, judizial eta akademikoetan eragin handirik eduki.

Ildo honetatik, kontuan izanda biktimen udal errekonozimendu eta erreparazio politika baten gabezia zela Diagnostikoaren emaitzetatik nabarmentzeko beste alderdi bat, Protokolo honetan indarkeria matxista benetan interes publikoko gai bat bihurtzea ahalbidetuko duen lan lerro hau barneratzen da, esku-hartze berezi bat beharrezko bihurtuz biktima eta biziraundakoen erreparazioa bermatzeko. Erreparazio ikuspuntu hau zehaztea eta politika publikoetara txertatzea esfortzu handia eskatzen duen lana da, feminismotik eman nahi zaion esanahiaren berrikuspenarekin batera.

Protokolo hau kokatzen den esparru juridikoa aldaketa fase batean dago, emakumeen kontrako indarkeriaren eta erreparazio politikei ekiteko beharrei definizioari dagokionez, estatuko legeria autonomikoa oraindik ez baita Istanbulgo Hitzarmenak ezartzen dituen irizpideetara egokitu. Prozesua bukatu gabe egoteak ez du zertan oztopo izan behar udal politiketan, aipatutako kontuetan esku hartzeko. Aitzitik, tokiko eremutik prozesu hauek zehaztasun handiagoa eta hobeagoa sustatzeko pausoak emateko erabil daitezke. Abiapuntua, ezarritako marko orokorra, nahi ta nahiez bete beharrekoa den Istanbulgo Hitzarmena betetzeko hain zuzen.

Dokumentu honek esku-hartze marko bateratu hau eraikitzeke lehen esfortzu kolektiboa jasotzen du, lan bateratua oztopatzen dutela diruditen eragozpenak kontuan hartuz. Nahiz eta marko kontzeptual eta legeletan zein dauden mekanismo eta prozeduretan kontraesanak egon, oso argi daukagu prozesu hau gidatu duen

egonezina biktimak eta biziraun dutenak zein beren beharrizan eta interesak esku hartzearen erdigunean jartzea izan dela.

## **2018ko abendua**

## 1. ZIOEN AZALPENA

Indarkeria matxista<sup>2</sup> deritzogu emakumeen aurkako (emakumeak kolektibotzat joaz eta bereizi gabe) eta heteroaraua hausten duten gizon-emakumeen kontrako kontrol eta diskriminazio moduei. Kontrol hau gizonezkoek eta izaera maskulinoak emakumeekiko eta izaera femeninoarekiko daukaten gainjartzea oinarri daukan egitura sozial hierarkikoan sustengatzen da; hau normalizatu eta justifikatzen duen kultura baten baitan gertatzen delarik. Indarkeria matxista pertsonen arteko harremanetan ager daiteke larderiazko jokaeren bidez, hauek, leun edo bortitzak izan daitezke, hainbat formatan adieraz daitezke (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa etab.) eta hainbat esparrutan eragin dezakete (arloan pribatuan, publikoan eta bertualean).

Indarkeria honen ondorioak askotarikoak izan daitezke eta biktimei epe labur, erdi edo luzean edozelako kalteak eragin diezaiakete, bai berehalakoan edo baita denboraldi batera ere. Eta modu zuzenean, zeharka eta sarritan oharkabean injustiziazko gizarte harremanak produzitu eta erreproduzitzen dituzte, sozialki esleitutako pribilegio maskulinoei (zeinak gizonezko gehienek onartzen dituzten) eskubide izaera emanaz; hala nola emakumeenganako, umeenganako eta orokorrean, arau heteropatriarkalera<sup>3</sup> egokitzen ez diren pertsonenganako kontrola eta boterea.

Indarkeria hau historikoki emakume eta gizonen artean egon den egiturazko desberdintasunean sustraitzen den arazo bat da, eta mundu mailako Giza Eskubideen errespetu eta berme sistemaren erronka nagusienetakoa da.

Indarkeria hau ezin da azaldu pertsona arteko terminoetan soilik ezta gizonaren inpultsu erasokorrean, emakume eta gizonen sozializazio estereotipuetan, erasokortasunaren adierazpen forma desegokietan edota maitasunaren, bikotearen edo familiaren inguruko ideietan oinarrituz ere. Elementu guzti hauek presente dauden arren, indarkeria matxistan nahitasun instrumental bat dago: azpiratzea eta

---

<sup>2</sup> Erabilitako kontzeptuak eta beraien baliokide teoriko eta legalak marko kontzeptualaren atalean garatzen dira.

<sup>3</sup> Nahiz eta azken urteetan pribilegio hauek zalantzan jartzen dituzten gizon taldeak ageri, oraindik ere hauek gutxiengo bat dira. Gizonekin maskulinitatea lantzeko ezaugarri batzuk hurrengo link honetan aurki ditzakegu: <http://www.euskadi.eus/departamento-salud/-/informacion/entrevista-mikel-otxotorena-fernandez/> 2019ko urtarrilaren 21ean kontsultatua.

kontrola. Baita nahitasun espresibo bat ere: emakume eta gizonen arteko inposatutako harreman desberdin eta hierarkiako mantenua.

Horregatik indarkeria matxistaren biktimen artatze egoki batek zirkunstantzia eta gertakari batzuen zerumuga zabal bat behar du, aitorpenezkoa izan behar dena:

- Euskadin, emakume taldeek eta **mugimendu feministak** eginiko lan eta esfortzuari esker, indarkeria matxista arazo publiko gisa onartua izan da, eta arazo pribatu gisa. Horregatik politika publikoentzako erronka handia da ikusmolde honetara egokitzen diren neurri eta esku-hartzeak diseinatzea.
- Emakumeek, jasaten duten indarkeria toleratzera bultzatzen dituzten eredu tradizionaletatik haratago, beren bizitza nola bizi nahi duten erabakitzeko aukera eta gaitasunen handitze gisa hartu behar da **ahalduntzea**.
- Emakume eta umeen **giza eskubideen** jarduera eraginkorrean indarkeria matxistak eragin handia daukala esateak, estatu eta instituzioen jarduera erantzukizun handiko espazio batean jartzea eta **babes jarrai eta konprometitu** baten konpromisoa hartzea suposatzen du.

Indarkeriari aurre egiten dieten emakume biktimen artatzean jarduten duten instituzioek indarkeria kasuetarako esku-hartze protokoloak elaboratu dituzte azken urteetan, bereziki bikote eta bikote ohi harremanetan gertatzen dena, *genero indarkeria* deitzen dena indarrean dagoen estatu mailako legedi eremuan. Protokolo hau sinatzean entitate hauen konpromisoa erakundeen arteko koordinazioan aurrerapausoak ematean datza, protokolo espezifikoen prozedura anitzak bateratzeko helburuarekin.

Baina, beste alde batetik, zerbitzu guztietan indarkeriak forma instrumental gisa dauzkan ondorioak eta biktimei eragiten dien oinazea modu egokian artatzeaz gain, indarkeriaren izaera espresiboa ere artatu behar da, eragiten dituen kalte indibidual, kolektibo eta sozialak erreparatuz. Hau modu egokian emakumeen eta indarkeria matxistaren biktimen Giza Eskubideen irakurketa feminista bat eginez lortuko da soilik.

Berehalako ondorio zuzen bat, biktimak "eskubideen titular" kontsideratuz artatze formak eta prozedurak egokitzea da, ez baitira inork esleitutako egiaztagiri baten bidez onuradunak diren erabiltzaile hutsak. Izan ere, Estatuak bere maila guztietan (kasu honetan udalerrri mailan eta bere eginbeharretan) aipatutako eskubideak bermatu behar dituen "behartutako instituzio" bezala kokatzen da.

Biktimak laguntza behar duten, eta batzuetan beraiekin adostu ez diren norabideetan aritzeko derrigortuta dauden subjektu zaurgarri gisa hartzen dituzten arreta eta esku-hartze formak gainditu behar dituen ikuspuntua izan behar dela ulertzen dugu. Hala ere, protokolo honen helburu bat entitate guztietan emakumeen agentzia<sup>4</sup> sustatuko duten langileak edukitzea da, emakume bakoitzaren abiapuntutik beraien ahalduzko prozesurako baldintzak eta baliabideak lortuko dizkietenak.

Lan hau egiten hasteko motibazio nagusiak, zerbitzu egokien sare bat sortzea lortzea (zeina indarkeria matxistak bere maila guztietan eta bere biktima guztiekiko dauzkan ondorioekiko ulerkorra den) eta Giza Eskubideekiko errespetuzko jarrera daukan biztanleria (zeinak urratutako eskubideak kolektiboki aitortu eta erreparatzen dituen) lortzea izan dira.

Azkenik, protokolo hau itxi gabe dagoen dokumentua dela ulertzen dugu, aitzitik, bere jarraipenerako eta ebaluaziorako aurreikusitako espazioetan hautemandako beharrezkoak egokitzea du helburu. Era berean, beste entitate publiko eta elkarte feminista, emakume talde edo herrian dauden bestelako batzuk barneratzeko lanean jarraitzea konprometitzen da, protokolo hau elikatzen duten arrazoiak partekatu eta hedatzeko

---

<sup>4</sup> Emakumeek boterea har dezaten egin beharreko funtsezko pausoa da; beren premien, interesen eta eskubideen alde borrokatuz. "Agentzia" kontzeptua pertsona batek edo talde batek bere helburu propioak definitzeko eta eskuratzeko jarduteko duen ahalmenari dagokio. Emakumeen bizi hobetzeko emakumeen mobilizazioan enfasia jartzen duen kontzeptua da honako hau; beraz, horren aldeko apustu bat egiten du, hau kontrajarriz bestelako agente edo Estatuak emakumeei beraien iritzia aintzat hartu gabe diseinatutako zerbitzu edo baliabideak eskuratzeko itxaroten egoteko jarrerari.



## 2. AKORDIOAK

Sinatzaileek, Andoaingo Udalak, Hernaniko Ertzaintzaren Komisaldegia, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak honako adosten du:

**Lehenengoa:** Artatzearen hobekuntzarako mekanismoak eta Andoainen sexu erasoak eta genero indarkeria pairatzen dituzten emakume eta adingabeenganako erreparazio ikuspuntu bat barne bilduko dituen Ekintzarako eta Koordinaziorako Elkarte Arteko Protokolo bat sinatu.

**Bigarrena:** Emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako politika publikoen diseinuari, koordinazioari, jarraipenari eta ebaluazioari laguntzea, gerora artatze ikuspuntua indarkeria hau agertzen den beste forma batzuetara zabaltzeko konpromisoa hartuz, hala nola lesbofobia, homofobia edo transfobia.

**Hirugarrena:** Indarkeria aurre egiten dieten emakumeen arreta ahalduz egiteko ikuspegi batetik garatzea. Ikuspegi horrek emakumeen indarra berreskuratu eta tokitik, Foru Aldunditik, maila autonomikotik, zein estatu mailatik ezarritako berdintasun-politika publikoen esparruan txertagarria izan behar du.

**Laugarrena:** Koordinazio Mahai iraunkor bat osatu eta protokoloaren jarraipen eta betetze eginkizunen ardurak ezarri ondorengo instituzioei: Andoaingo Udala (Berdintasun Saila, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteri Saila), Osakidetzak, Ertzaintza eta hezkuntza zentroak. Entitate hauek protokolo hau martxan jartzera konprometitzen dira, Protokolo honetan, dagokion atalean, garatutako prozedura eta mekanismoak kontutan hartuz.

**Bosgarrena:** Lehen Protokolo honetan hitzartutako koordinazio eginkizunei jarraipena egiteko instituzio bakoitzean erreferentziazko pertsona bat izendatu, era berean ordezkari pertsona bat izendatuz titularra den pertsona falta den aldietan funtzio hau betetzeko.

**Seigarrena:** Indarkeria matxistaren prebentziorako difusio kanpaina eta ekintzak bultzatzea, indarkeria honen adierazpen zuzenen gizarte gaitzespena zabaltzeko, baina baita bere adierazpen sinboliko eta egiturazkoei dagozkienak ere.

**Zazpigarrena:** Datu bilketarako tresnak ebaluatu, hobetu eta kohesionatu indarkeriatik ateratzeko emakumeen ibilbideen analisi hobe bat ahalbidetzeko. Ekintza honen helburua protokolo hau sinatzen duten entitateetan hobekuntzak sustatzea izango da, zerbitzu foral eta autonomikoen hobekuntzarako proposamenekin batera.

**Zortzigarrena:** Indarkeriari matxistari aurre egiteko, prozesuaren fase guztietan emakumeen parte hartzea bultzatzearen konpromisoa, beti ere, euren erritmoak eta beharrei arreta jarritz.

**Bederatzigarrena:** Etengabeko prestakuntza eguneratua eta egokitua eskaintzera konprometitu. Prestakuntza hori, gure erakundeetako kideen beharretara egokituko da.

**Hamargarrena:** Protokoloaren funtzionamenduaren ebaluazio jarraituko prozesu bat garatu, artatzearen funtzionamendu onenerako beharrezkoak diren hobekuntzak berehalakotasunez txertatzea ahalbidetuko duena. Aurrekoaz gain, sinatzen duten entitateak protokoloaren zein arreta politiken ebaluazio bat bultzatzera konprometitzen dira, martxan jarri eta bi urtera.

**Hamaikagarrena:** Biztanleriaren artean protokolo hau existitzen denaren ezagutza sustatu biktimek bertara jo dezaketen laguntza zerbitzu eta prozedurak ezagunak izateko helburuarekin eta biztanleria ere indarkeria matxistaren aurkako babes eta borroka gizarte sare bat bihurtu dadin.

**Hamabigarrena:** Kontuan izanik biktimen artatze prozesuan, erreparazioaren eskubideak eta egintzak zeharkako ikuspegi bat eduki behar dute, eta erakunde publikoak "behartutako erakunde" bezala kokatzen dira, eskubide horiek bermatuz, erreparazio neurri zehatzak bultzatuko dira.

Andoainen, 2019ko apirilaren 4an

**SINATZAILEAK**

**Andoaingo Udala**




Ana Carrere Zabala  
Alkatea  
Andoaingo Udala



**Ertzaintza**



Karmelo Martinez Sarobe  
Komisario Burua  
Ertzain-Etxea Hernani



**Osakidetza**



Marisa Merino Hernandez  
Gerente Zuzendaria  
Tolosaldea ESI



### 3. MARKO LEGALA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta koordinatzeko helburuari dagokion arau-esparruko legedi nagusia honakoa da, EAEn botere publikoen esku-hartzea ere arautzen duena:

#### **Emakumeen aurkako indarkeriaren** arloan:

- i. 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbuleko Protokoloa), zeina 2014ko apirilaren 11an Estatu espainiarrak berretsi zuen eta 2014ko abuztuaren 1etik indarrean dagoen.
- ii. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa.
- iii. 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- iv. Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

Aipatutakoez gain, **emakume atzerritarren aurkako indarkeriaren** arloan honako hauek ere badaude:

- i. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa.
- ii. 4/2000 Lege Organikoaren erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- iii. Otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.

#### **Adin txikikoen** babesaren arloan:

- i. Otsailaren 18ko 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

- ii. Uztailaren 22ko 8/2015 Legea, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketaren gainekoak, bere hirugarren xedapen gehigarrian abenduak 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan aldaketak ezartzen dituen.

**Eskumenen banaketaren** arloan:

- i. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- ii. Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- iii. Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- iv. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- v. Abenduak 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren 19.artikuluaren 7. puntua, berdintasun organismoen kompetentziei buruzkoa.
- vi. Martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

**Datuen babesari** dagokion arloan:

- i. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteri buruzkoa.
- ii. 2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) 2016ko apirilaren 27koa, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu orokorra) indargabetzen duena 2006ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zena eta 2018ko maiatzaren 25etik aurrera derrigorrez aplikatu beharrekoa.

Halaber, hurrengo akordioak ere hartzen dira kontuan:

- i. Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa (1999).

- ii. Etxeko tratu-txarrak jasan duten emakume biktimen Segurtasun Plana, 2002-2004.
- iii. Segurtasun gorputz eta indarren jokaera eta genero indarkeria eta etxeko indarkeria jasaten duten emakumeak babesteko auzitegi organoekin duten koordinazioari buruzko Protokoloa, 2004.
- iv. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimen babes aginduak ezartzeko Protokoloa, 2003.
- v. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimentzako bizileku eta harrera baliabideak hobetzeko Programa, 2004-2005.
- vi. Etxeko tratu-txarren eta emakumeen aurkako indarkeria sexualaren gaineko osasun arloko Protokoloa, 2008.
- vii. Etxeko tratu-txarren eta eraso sexualen biktimen harrera hobetzeko II. erakundeen arteko Akordioa, 2009.

Batez ere abenduaren 28ko Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat egiten duen marko legal honen barnean, euren bikote edo bikote ohien esku indarkeria zuzena jasaten duten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira:

- i. Emakume atzerritarren eskubideak (17.1.art.)
- ii. Informaziorako eskubidea (18.art.)
- iii. Esku-hartze sozial osoa jasotzeko eskubidea (19.art.)<sup>[1]</sup><sub>SEP</sub>
- iv. Dohako, berehalako eta espezializatua den esku-hartze juridikoa jasotzeko eskubidea (20.art.)
- v. Laneko eskubideak eta Gizarte Segurantzako prestazioak jasotzeko eskubidea ( 21, 22 eta 23 art.)
- vi. Eskubide ekonomikoak (27 art.)
- vii. Babes ofizialeko pisu eta zahar-etxeetara sarbiderako lehentasuna (28.art.)

- viii. Seme-alaben berehalako eskolaratzerako eskubidea (5.art. eta hamazazpigarren xedapen gehigarria).

Horrez gain, genero indarkeriaren biktimei **delitu baten biktima** izateagatik beste eskubide batzuk ere badagozkie:

- ✓ Salaketa bat formulatzeko eskubidea.
- ✓ Etxeko Indarkeria jasan duten biktimen Babes-agindua arautzen duen ekainaren 31ko 27/2003 Legeak ezartzen duen Babes-agindua eskatzeko eskubidea.
- ✓ Bere erasotzailearen aurrean ez aitortzeko eta bere segurtasun eta ongizate emozionala bermatzen duten neurri guztiak hartzeko eskubidea.
- ✓ Prozedura penalaren parte izateko eskubidea.
- ✓ Gauza itzultzeko, sortutako mina erreparatzeko eta eragindako kalteagatik indemnizazio bat jasotzeko eskubidea.
- ✓ Ekintza judizialen informazioa jasotzeko eskubidea.
- ✓ Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.
- ✓ Delituen biktimei laguntzak.

#### **4. MARKO KONTZEPTUALA, TERMINOLOGIKOA ETA ESKU-HARTZE PRINTZPIOAK**

Kontutan hartuz azken bi urteetan emakumeen aurkako genero indarkeria eztabaida publikoan egon dela, bai emakumeak indarkeriarik ez pairatzeko eskubidearen aldarrikapenaren inguruan egin diren mobilizazio feministengatik zein kasu mediatiko eta sententzia judizial polemikoengatik, egokia deritzogu honen inguruko terminologiaren baliokidetasunak, esku hartzearen kontzeptu batzuk eta bertatik bideratutako esku hartzearen printzipio gidariak nabarmentzeari atal bat eskaintzea.

##### **4.1. Terminologiak eta baliokideak**

Problematika bat izendatzeko era berarenganako dagoen pertzepzioaren araberakoa da. Aurretik aipatutako arauetan ezarritako askotariko terminologia egun indarrean egon arren, askotan ez dira bateragarriak. Emakumeak emakume izatearren jasaten duten indarkeria izendatzeko forma anitzak erabiltzeko bateragarritasun bat proposatuko dugu.

#### **INDARKERIA MATXISTA**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko *emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak* horrela definitzen du: *kontrol, eraso, baztertze, inposizio zuzen, estruktural eta sinboliko forma eta ekintza guztiak, alde batetik sexu-genero-sexualitate estereotipoak zalantzan jarri eta hausten dituztenen aurka zuzentzen direnak, eta bestetik estereotipo hauek hautsi gabe inplizituki bertan dauden botere harremanak pairatzen dituzten gorputzak, hau da, emakumeak.*

Ez dauka beste bateragarritasunik maila juridikoan baina modu zabalean erabiltzen den kontzeptua da. Entitate feministek erabiltzen dute alde batetik, "Indarkeria matxistak", pluralean, izendatuz. Bestetik, komunikabideek ere erabiltzen dute, baina kasu honetan bere erabilera ez da guztiz zehatza, bikotekideak edo bikotekideak erabilitako indarkeriarekin edo sexu erasoekin bateratzeko joera daukatelako.



Mugimendu feministaren barruan eta marko kontzeptual honetatik bideratuz, baina baita Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Etxeko eta Genero Indarkeriaren kontrako Behatokiko txostenetan ere, **feminizidio** kontzeptua erabiltzen da emakumeen hilketak izendatzeko (homizidioa edo hilketa gisa juridikoki nola kontsideratzen den kontuan hartu gabe). Emakumeen aurka egindako ekintza baten ondorioz hil direla azpimarratzen duen kontzeptu juridiko bat da.

### **GENEROAGATIK EMAKUMEEN AURKA EGITEN DEN INDARKERIA-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-INDARKERIA SEXISTA**

Istanbulgo Hitzarmeneko definizioekin bat eginik, "*emakumeen aurkako indarkeria genero arrazoiengatik*" kontzeptua horrela definitzen da: *emakume baten aurkako indarkeria oro emakume izateagatik edota emakumeei modu desproporzionatuan eragiten dienean.*

Legedi autonomikoak emakumeen aurkako indarkeria kontzeptua era biltzen du definitzeko *den sexukoa izateagatik emakume baten kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edota emakumearen sufrimendua eragiten duen edo eragin dezakeen edozein indarkeria ekintza, ekintza hauek gauzatzearen mehatxuak, hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arauaren terminologiaren arabera, indarkeria sexista emakumeei emakume izateagatik zuzenean eragiten diena da.

### **ETXEKO INDARKERIA-GENERO INDARKERIA**

Istanbulgo Hitzarmeneko definizioen arabera, "*etxeko indarkeriatzat*" ulertuko dira *familian, etxean, senar-emazteen artean, izatezko bikote edo bikote ohien artean gertatzen diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edota ekonomiko guztiak, delituaren egileak eta biktimak etxe berdina konpartitu duten edo ez kontuan hartu gabe.*

2004ko abenduaren 29an BOEn argitaratua Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoan genero indarkeria horrela definitzen da: "*Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonetakoek beren ezkontide diren edo izan diren*

*emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan".*

Modu eskusiboan ez, baina bai integratuz, II. Erakundeen Arteko Akordioak *tratu txarrak etxeko eremuan* kontzeptua erabiltzen du erreferentzia egiten dien emakumeen aurkako indarkeria forma bati buruz hitz egiteko.

**Etxeko Indarkeria-Familia Arteko Indarkeria** zehazteko orduan sortzen dira zailtasun gehienak, izan ere, ikusi dugun moduan, Istanbulgo Akordioaren definizioak estatu mailako Lege integraleko genero indarkeria barneratzen du bertan, baina ez du definizioa hori bukatzen. Zigor Kodeak bere 153. eta 173. artikuluetan etxeko indarkeria bi elementutan oinarrituta definitzen du: familiarekiko harremana eta bizikidetzak. Elementu hauetan sexua ez da delitua definitzen duen ezaugarria, horregatik emakumeak biktima gisa zehazteko emakumeen aurkako etxeko indarkeria izendatu beharko litzateke, bere Arau Foraleko baliokidea senide arteko indarkeria sexista izango litzatekeelarik.

Definizio hauek bat datoz indarkeria FORMEI eta EREMUEI dagokienez. Horrela, hautematen diren indarkeria formak (daukan izendapena daukala) hauek dira:

- *Tratu txar fisikoa*: emakumeen segurtasun fisikorako ez ustekabeko mina edota arriskua dakarten ekintzak. Erasotzeko tresnak objektu, arma, substantzia arriskutsuak edo erasotzailearen gorputza bera izan daitezke, eta horren ondorioz sor daitekeen kaltea arina edo larria izan daiteke. Tratu txar fisikoa dagoenean tratu txar psikologikoa ere badago.
- *Tratu txar psikologikoa*: halabeharrezkoak ez diren eta emakumeen osotasun psikologikoa kaltetu edota arriskuan jartzen duten egintzak dira. Forma anitzetan agertu daitezke: irainak, umilazioak, mehatxuak, etab., sarritan modu ikusezinean ere adierazten direnak. Emakumeen mugikortasuna eta gizarte harremanak mugatu edota eragozten dituzten kontrol sozialerako mekanismoetan ere adierazten da. Jarrera baten forma har dezake (adibidez, jazarpen jarrera bat), edo ahoz adierazi daiteke. Kasu hauetan, garrantzia hartzen du esaten denaz gain esateko moduak ere.

- *Tratu txar ekonomikoak*: Nahita egindako eta justifikatu gabeko emakume batentzako ongizate fisiko eta psikologikorako baliabideen ukapenean datza, baita bere seme-alabei ere edukiz gero, eta baliabide propioen edota familia edo bikote eremuan partekatzen diren baliabideen banaketaren mugapenean: banku-kontuetarako sarbidearen ukapena, elikagaien pentsioaren ordainketaren eginbeharra borondatez ez betetzea, konpentsazio-pentsioa etab. Berekin dakar halaber, kontrol ekonomikoa edota biktimarenak diren baliabide eta ondasunak eskuratzea mugatzea. Tratu txar ekonomikoak dauden guztietan tratu txar psikologikoak daude
- *Sexu indarkeria*: Emakume bat nahitaezko intimitate sexuala mantentzera behartzen duten ekintzak dira (larderia, hertsapena -xantaia edo mehatxua- edo borondate pertsonala baliogabetzen edo mugatzen duen beste mekanismo bat erabiliz). Indarkeria sexuala dagoenean tratu txar psikologikoa ere egoten da.

Indarkeria hau gauzatzen den EREMUEI dagokionez askotariko legedietan izendatzen dira: PRIVATUA eta PUBLIKOA. Azken honen definizioa ez da mugatzen soilik pertsona ezezagunek elkarrekin topo egiten duten kaleko edota leku zabaleko espazioetara, aisialdi espazio antolatua (kirol zentroak, jai gunek), ikasketa gunek (liburutegiak), administrazio tramiteak burutzeko tokiak, garraio publikoa etab. ere definizio horren barruan sartzen dira.

Berriki, eremu birtualeko indarkeria espresioak ere txertatu dira (ziber indarkeriak), eta baita definizio hori hain argi ezartzen ez den espazio publiko-pribatuetakoak (adibidez, aktibitate kolektiboetarako espazio pribatuak).

Halaber, batez ere administrazio publikoko zein judizialeko askotariko egituretatik pasatzen diren emakume biktimen eskutik, geroz eta gehiago azaleratzen ari den eremu bat INDARKERIA INSTITUZIONALARENA da. Indarkeria honen formak tratu txar pertsonala, prozedura geldoak, administrazio arteko koordinazio falta, ulergaitzak diren hizkera profesionalak edota esku hartze mekanismoen interpretazioan zurruntasuna adieraztea izan daitezke, besteak beste.

Ikus genezakeen moduan, eremu eta formen arteko konbinazioak, jarreraren nahitasunarekin batuz, lehendik konplexua den fenomeno baten ulermena oraindik gehiago zailtzen du. Eta oraindik konplexuago da gutxi homogeneizatutako hiztegi polisemiko baten erabilerarengatik, akordio juridikoetan ere erabiltzen dena.


Sexu indarkeriari dagokionez (nork gauzatzen duen kontutan hartu gabe) egungo legediak (nahiz eta berrikuste fasean dagoen momentu honetan) hiru mota bereizten ditu:

- × *Sexu erasoak*: Indarkeria edo larderia dela medio beste pertsona baten sexu askatasuna erasotzen duen edozein jokaera. Indarkeria deritzogu indar fisikoa edo larderiaren erabilerari; adibidez, jokaera psikologiko bat non bere helburua lortzeko beldurra eragiten den, berehalakoa eta larria den eraso, edota biktimak edo bere ingurukoak mehatxatzea. Sexu eraso mota ohikoena bortxaketa da. Bortxaketa honela definitzen da: maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea, edota esandako lehenengo bi bide horietako batetik gorputz atalak edo objektuak sartzea.
- × *Sexu abusuak*: indarkeria edo larderiarik gabe pertsona baten sexu-askatasunaren aurka egiten diren ekintzak. Baita bere borondatezko ahalmena edo adimena mugatuta daukatelako baliozko ezaguerarik utz ez dezaketen emakumeei egindako abusuak, eta bereziki adingabeen aurka egindako sexu abusuak.
- × *Sexu jazarpena*: lan harreman, irakaskuntzaren edo antzeko esparruetan gertatzen diren eta desiratu gabekoak diren izaera sexualeko hitzezko edo ez hitzezko portaerak dira. Horien helburu edota ondorioa, emakumearen duintasunaren kontra erasotzea edota larderiako ingurune apalgarri, iraingarri edo etsaigoko ingurunea sortzea da.

#### **4.2. Esku-hartzea ahalduntze eta erreparazio ikuspegitik**

Udalerrian emakumeak artatzen dituzten zerbitzuen artean hizkera komun bat sortzeko asmoz, ikuspegi feminista batetik indarkeria matxistaren biktimen erreparazioaren ikuspuntuari buruzko ideia batzuk garatu ditugu.

Abiapuntu gisa balioko duen erdiguneko ideia gisa, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen erreparazio eskubide eta egintza ezin da emakumeen artatzerako azken pausura mugatu, biktimen arreta prozesu guztian **zeharkako ikuspegi** bat eduki behar baitu.



Esku hartze mailen eskema honek baliozkoa izaten jarraitzen duen arren, haratago joan nahi genuke esku hartze maila guztietan erreparazio eta ahalduntze printzipioak barneratuz.

#### 4.2.1. Esku-hartze indibiduala

*INDARTZAILEA* izan eta *ERREHABILITAZIOA* ahalbidetu behar du

Beharrezkoa den asistentzia medikoa, psikologikoa, juridikoa edota soziala barne hartzen da, bai biktima zuzenarentzako zein bere biktimizazioaren ondorioak jasan dituzten ingurukoentzako, adingabeak bereziki. Helburu indartzailea artatze prozesu osoan kontutan izatea lortzeko emakume biktimen sarbideak gehitzea garrantzitsua izango litzateke, soilik Ertzaintza eta Gizarte Zerbitzuetara mugatu gabe, eta baita

zerbitzu guzti hauetan emakumeak ez estigmatizatzea biktima izatearen gainean dauden jokatzeko, bizitzeko edota izateko aurre iritzien ondorioz.

Aldi berean, esku-hartzetik pertzepzio eta auto pertzepzioa landu behar da, emakumea ez izateko soilik baliabide baten hartzailea, eskubideak berrezarri behar zaizkion biktimizatutako emakume bat baizik.

#### *INDEMNIZAZIO EKONOMIKOA* aurreikusi behar du

Eragindako kalteekiko eta galdutako aukerekiko proportzionala den konpentsazio ekonomikoa izateko duten eskubidea onartu behar da emakumeekin batera. Beharrezko asistentzia eskuragarri izatea indemnizazio ekonomiko baterako eskubidea lortzeko, beraien kasuan, pairatutako kalteengatik egokitu ahal zaiena. Bizirik ateratzen diren emakumeek, indarkeriatik eratorritako ondorioen berezitasunagatik edota larritasunagatik artatzerako eta berreskurapenerako baliabide-sarean erantzun egokia edo nahikoa aurkitzen ez dutenean, osasun-tratamendu egokiak finantzatzeko laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte. Beste alde batetik, konpentsazioa zentzu hertsiki ekonomikoan ez da nahikoa gaur egun oraindik, bereziki beste indarkeria batzuen biktimek jasotzen dituzten laguntzekin alderatuz gero<sup>5</sup>.

#### *ESKUBIDEAK LEHENGORATZEA* bideratu behar da

Biktima giza eskubideen urraketa aurretik zegoen egoerara bueltatzean datza<sup>6</sup>. Honen helburua ez da emakumeak beraien giza eskubideen urraketa gertatu aurreko egoerara itzultzea, baizik eta egoera horretatik ateratzea ahalduz prozesuen bitartez, biktimen elkarte batzuek bultzatzen dituzten modukoak adibidez, eta nahiz eta soilik biktimez osatuta ez dauden elkarteak egon, hauen alde lan egitea erraztea.

---

<sup>5</sup> Indarkeria matxista indarkeria terrorista baino 10 aldiz gutxiago indemnitzen dela ondorioztatzen da bi informentan (*Compensación a las víctimas de delitos violentos en España: distintos raseros*, M. Daza Bonachela, eta MJ. Jiménez Díaz eta *Paralelismos entre terrorismo político y terrorismo machista*)

<sup>6</sup> *Erreparazio eraldatzaile* kontzeptua bultzatzean datza, *lehengoratze justiziaren* aurrean, honek soilik pertsona urraketa gertatu aurreko egoerara itzultzea bilatzen duena, aurreko egoera hori bera ere agian jada diskriminazio egoera bat zenean.

#### 4.2.2. Esku-hartze kolektiboa

Prozesuan komunitatearen parte hartzea ere biktimaren erreparazio sozialaren zati gisa ulertu behar da. Bitartekotzan parte hartzen duten aldeek biktimaren eta erasotzailearen inguru hurbilenaren zati bat osatzen dutela kontuan hartzen badugu, komunitatea – herria – ere erantzunkidetu egin behar da indarkeria matxistaren aurkako borrokan, arazo kolektibo gisa ulertuta. Gizarte erreparazioaren fase honetan erronka bat ere agertzen zaigu, indarkeria matxistaren “biktima” kontzeptuaren gizarte estigma ezabatu behar baita.

Emakumeen *ASOZIAZIONISMOA* bultzatu behar da, eurek nahi duten bezala

Bizirik ateratzen diren emakume taldeei egiten zaien laguntasun eta babes lanean datza, bihurketa prozesuaren baitan. Ikuspuntu feministatik, emakumeenganako artatze-zerbitzuek gizarte eraldaketa baten parte izan behar dute, bai komunitatean txertatuta zein indarkeria matxistaren bizirik atera diren biktimentzako zerbitzu sare espezializatu – ez derrigorrez zerbitzu publiko – baten bitartez, emakume elkarten edo ahalduntze eskolen bitartez, emakume Etxeak etab.

Bihurketa prozesu honetan, bizirik atera diren emakumeen elkarteek garrantzi berezia hartzen dute biktimen ahotsa aurkitzen, indarkeriatik ateratzen, elkar ulertzen eta elkarri beste modu batera begiratzea lortzen laguntzen duten espazioak baitira, emakume bakoitzak historia bat eduki arren arazoa ez dela beraietako batzuen arazo eksklusiboa kontzientzia hartzen dutelarik.

Espazio hauek diru-laguntza publikoen bitartez bitartekariak lortzea ahalbidetzeko erantzukizuna daukate instituzioek, elkarte edo entitate bakoitzak emakume askori laguntzeko daukan ikuspegi espezifikotik artatu ahal izateko. Izan ere, emakume askok ez dute nahi instituzio publikoekin kontaktuan egon, eta beren beharrianen eta helburuen arabera artatze eta erreparazio eskubide berbera daukate.

Berriki egindako ikerketek agerian utzi dutenez, tokiko berdintasun kontseiluetan bizirik ateratako emakumeek eta emakumeen erakundeek daukaten presentzia bultzatzeak, non emakumeek esperientzia propioari buruz hitz egiten duten, autoritate handiagoa daukate sistemari kritika egiteko erantzunik jaso gabe.

### **4.2.3. Esku-hartze publikoa**

#### *AITORPENA* bermatzea

Kontakizunen eta biziraun duten emakumeen esperientzia anitzen hedapen publikoa bultzatu behar da, baita beraien ekintza kolektiboak edota hildako emakumeenganako oroitzapen eta omenaldi ekitaldiak ere.

#### *ASEBETETZEA* bermatzea

Erreparazio forma honetan barneratuko lirateke Gizarte Eskubideen testuinguruaren barneko adierazpenak, profesionalek erreparazioaren eta genero ikuspegiaren garrantzia uler dezaten. Hau arlo politikotik bultzatu behar da eta ekintza planetan eta aurrekontuetan islatu behar da.


#### *ERREPIKATUKO EZ DENAREN BERMEA* bultzatu

- Udalerriko instantzietatik erasotzaileenganako gaitzespen konpromisoa indartu.
- Erasotzaileekin lan neurri zehatzak, hau da: Erasotzaileekin esku hartze baliabideak, indarkeriaren errepikapenik ezaren helburuari laguntzeko asmoz.
- Protokoloa sinatzen duten instituzioek dagokion epaitegiarekin bitartekaritza lanak egitea, gutxienez, emakumearenganako indarkeriaren errepikapenik ez gertatzearen eskubidea gutxienez bermatuko duten babes aginduak adosteko, eta emakumeak berreskurapenarekin jarrai dezan.
- Abusuen errepikapena ekiditeko beharrezko babesak eduki, babes polizialaren tituluan aurreikusitako bezala.



### 4.3. Printzipio gidariak

Ekintza Protokolo honetan jasotako jarraibideen betekizunean, eta betiere kontutan izanik esku hartzearen helburu nagusia emakumeek eta hauen seme alabek beraien harreman afektiboak **indarkeriarik gabe** bizi ahal izatea izan beharko dela, parte hartzen duten profesional eta instituzio guztiek ondorengo printzipioak hartu beharko dituzte kontuan<sup>77</sup>:



Printzipio hauek protokolo honek bete nahi dituen ondorengo helburuetan islatuko dira:

- Instituzioetatik eskaintzen den artatzea, **laguntza integrala** eta babesa hobetzea, bertako profesionalen eskumenen formazio espezializatua bultzatzeaz gain, **hautemate goiztiar/prebentzioa** ahalbidetzeko helburuarekin, horrela indarkeria matxista egoerak berriz gertatzea ekidinez.
- **Larrialdi egoeratarako** erantzun egokiak garatzea, bereziki adingabeak ere badauden kasuetan, beraien segurtasuna bermatzeko asmoz.

<sup>77</sup> II. Erakunde Arteko Akordioaren printzipioak jasotzen dira eta beste funtsezko interesdun batzuk txertatzen dira Protokoloa sinatzen duten instituzioentzako.

- Ekintza oro gidatu behar duen **konfidentziasun printzipioa** errespetatzeko beharrezana azpimarratu, eta bereziki biktima adingabea denean, eta bere interes goragokoa gailenduz.
- **Aitorpen eta erreparazio** neurriak ezarri, azken hau berreskurapen integral gisa ulertuz eta ekintza hau ez errepikatzea bermatuz. Erreparaziotzat daukagu biktimari urratutako eskubideak berrezartzea, kasu batetik bestera eskubide hauek aldatu egingo direlarik.
- **Ahalduntzea eta normalizazioa.** Kasu bakoitzerako neurri egokien antolaketak emakumeen autonomia pertsonalari mesede egiten ahalegindu beharko da, egoera hauei aurre egiteko gaitasuna indartuz eta erabakiak hartzeko gaitasuna bultzatuz.
- **Adingabeak:** Adingabeen kasu anitzek, eskubideen titular gisa, aplikazio koordinatu eta koherente bat eskatzen dute, parte hartzen duten instantzia guztien lana eskatzen dutena halaber, ikuspegi homogeenetatik eta esku hartze helburu berberarekin: giza eskubideak, haurrak eta generoa.

## 5. INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUME BIKTIMAK ETA ADINGABEAK

Azken sei urtetan hogeita bederatzi haur hil dituzte beraien aitek. Beraien amei min emateko *indarkeria bikarioaren* jomuga izan ziren adingabeak; aitaren mendeku tresna izan ziren adingabeak, zaintza eta babesaren eginbeharraren hausleak.

Aita erasotzaileen oinperatze estrategia berriaren parte dira seme-alabak. Beraien helburua, "pater familias" ideian oinarrituta, mehatxu edota erasoen bidez kultura matxista batek ezarritako ordena mantentzea izanik. Hala ere, modu konstantean indarkeria matxista bizi duten umeen arazoaren icebergaren tontorra besterik ez den errealitate honek, ez du lortu justiziaren eta babes sozialaren iruditeria ezbaian jartzea, ez baitute uste ama bati tratu txarrak ematea eta bere seme-alabak maitatu, babestu eta zaintzen dituen aita on bat izatea bateraezinak direnik.

Sistema judizialean ikuspuntu herabea gailendu da, ez soilik genero perspektiba aldatze aldera, baita adingabeen babesari dagokionez ere. Aita erasotzaileen eskutik hildako haurren kantitatea, beraien seme alaben aurrean hildako emakume biktimen kasu mordoa, Elkarketa Puntuetan edo bisita erregimenetan ematen diren abusu eta tratu txarren jarraipen egoerengatik ama diren emakumeek tartekatzen dituzten salaketak...kontuan izanda ere, badirudi ez direla epaitegietako iritzi orokorra aldatzeko moduko adierazleak.

Genero ikuspuntutun sententziak gutxi izateaz gain, "nagusizentrismo" bat mantentzen da adingabe hauei modu egokian entzuten ez zaien eta beraien beharrian eta egonezinak kontutan hartzen ez diren sistema patriarkal batean.

Dokumentatutako kasuek erakusten digute arlo judizialean ume baten eta bere amari tratu txarrak ematen dizkion gizon baten arteko guraso eta seme-alaba harremana ez kaltetzea bilatzen duten erabakiak hartzen jarraitzen direla. Kontuan izan gabe biktima guztien (nagusiki amak eta beren adingabeko seme-alabak) segurtasunerako berme nahikoa daukaten bisita erregimen bat ezarri behar den edo ez, edota ulertu gabe guraso eta seme-alaba harreman bat ezin dela inoiz ondo egituratuta egon aita batek uste duenean bere seme-alaben ama den emakume bati tratu txarrak emateko, berau oinperatzeko edo kontrolatzeko eskubidea daukala. Haurren eskubideetatik eta guraso aginteak dakartzan eginbeharretatik abiatuta, bere seme-alaben ongizate eta bizitzaren gainetik bere bikotekideari min eman nahi dion gizon

bat inoiz ezin da izan aita on bat. Amaren autoritatea desgaitu eta emakume eta gizonen arteko harreman ereduak sortzen ari delarik.

Egungo erabaki judizialek Adingabeen Interes Goragokoa aintzat hartzen duten arren, sarri, (eta horrela ikus daiteke Andoaingo dokumentuetan) interes horiek murrizturik egon daitezke Elkargune Puntuetan egiten diren bisitetan, zeinak maiz adingabeen nahien kontra egiten diren.

Legedia erantzuten hasi den, baina oraindik arreta eta babes neurri nahikorik ez duen fenomeno kezagarria da haur eta nerabeen aurkako indarkeria. Askotariko formetan eta arloetan ageri da, eta udalerrian biktimari arreta ematen dieten zerbitzuek esku-hartzean hauek ere aintzat hartzen hasi behar dira.

Adingabeen segurtasunaren aurkako sei indarkeria mota bereiz ditzakegu:

1. Beraien aita edota amaren bikotekideak burututako erasoak amarenganako kontrol indarkeria forma gisa. Indarkeria mota honi **indarkeria bikarioa edo instrumentala** deritzogu.
2. **Esposizio bidezko indarkeria**, genero indarkeria dagoen etxebizitza batean bizitzeagatik gertatzen dena.
3. Hurrei zuzenean eragiten dien familia arteko indarkeria, bereziki, **sexu abusua** haurtzaroan.
4. **Eskola jazarpena** adin berekoen partetik.
5. Nerabeenganako kontrol eta **genero indarkeria**.
6. **Ziberjazarpena**.

Hauetako hainbat forma lantzen ari diren arren, euren detekzio eta tratamendua oraindik ez da beraien amena bezain ona. Hori dela eta, protokolo honetako atal gisa azaltzen da, horrela, askotariko indarkeria modu hauei bideratutako baliabideei eta esku-hartzei jarraipen bat emateko asmoz.

## **6. INDARKERIA MATXISTA KASUEN AURREAN DAUDEN PROZEDURAK ANDOAINEN**

### **6.1. Emakumeen eta adingabeen sarbideak**

“Sarbideak” Andoainen emakumeek indarkeria matxista beraien bizitzatik ezabatzeko helburuarekin esku hartze prozesu bat hasteko dauzkaten bideak dira. Artatze zirkuitura emakumeen sarbidea errazteko sarbide puntu hauek gehitzen ahaleginduko da beraien irisgarritasun hobe baterako. Emakume bat edozein sarbidek beste zerbitzu guztiekin harremanetan jarri ahal izatea ahalbidetu beharko luke.

Andoainen dauden sarbideak ondorengoak dira:

#### **1. EREMU ETA ZERBITZU MUNIZIPALAK**

- 1.1** OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK
- 1.2** UDALTZAINGOA
- 1.3** BERDINTASUN ZERBITZUA
- 1.4** GAZTE LOKALA

#### **2. FORU ZERBITZUAK**

- 2.1** GIZARTE LARRIALDIEN FORU ZERBITZUA

#### **3. ZERBITZU AUTONOMIKOAK**

- 3.1** ERTZAINZA. HERNANIKO KOMISARIA
- 3.2** OSAKIDETZA- ANDOAINGO OSASUN ZETROAK
- 3.3** OSAKIDETZA, OSASUN MENTALEKO ZENTROA
- 3.4** DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA
- 3.5** ASUNCION KLINIKA
- 3.6** BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)
- 3.7** ANDOAINGO HEZKUNTZA ZENTROAK
- 3.8** SATEVI (Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko telefono bidezko Arreta Zerbitzua)
- 3.9** LANBIDE

Honez gain, emakumeen sarbide batzuk, indarkeria kasuaren arabera, hautemate puntuak ere izan daitezke. Hautemate puntu hauek, kasu zehatz batzuetan eta ikuspuntu anitzetatik lan eginez, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen arreta eta esku-hartze mekanismoak aktibatzen direnean funtsezko rola edukitzea suposatu dezake.

Arestian aipatutakoez gain, mugimendu asoziatiboa eta herritarra ere hautamen eta informazio puntuak dira, eta kasu batzuetan emakumeei instituzioen esku hartzea osatzen duen arreta bat ere ematen diete. Horrela, borondatezko asoziazionismoa biktimei laguntzera bideratzen da kasu askotan, erabiltzailearen eremu geografikoan funtzio hauetan jarduten duten elkarte edo taldeak badaude bertan integratzea ahalbidetzen duena.

Gainera, lehentasun ordenaren arabera, tratu txarrekin lotura daukaten zirkunstantziak "ahaztu" eta beraiengandik aldendu nahi duten emakumeak daude, lagunak aurkitzea eta aisialdiko aktibitateak egitea ahalbidetuko dieten bideak aurkituko dituzten elkarteetan parte hartzen dutenak.

## **6.2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiten duten arreta, bideratze eta koordinazio prozedura**

**Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak indarkeria matxistaren biktimen eta beraien kargu dauden pertsonen erreferentzia dira laguntasun jarraitu bat eskainiz**

Erabiltzailearen kokapen geografikoagatik egokitutako Gizarte Langilea etengabeko babes erreferentzia da esku hartze prozesu osoan. Denbora honetan zehar bere eginbeharrak indarkeriatik ateratzeko prozesuan zehar emakumeak behar izan ahalko duen arreta, laguntasuna ematea, bideratzea eta gainerako zerbitzu eta baliabideekin (psikologikoak, legalak, ekonomikoak, lan formaziokoak, osasun baliabideak, etab.) koordinatzea dira.

## 1. Artatzearen hasiera:

Erabiltzaileak OGZ-etara ondorengo bideetatik irits daitezke:

- ✓ Zuzenean aurretiazko zita bitartez
  - eskaera zehatz batekin: bere tratu txar egoera hitzez adierazten du eta babesa eskatu.
  - eskaera inplizitu batekin: Oinarrizko Gizarte Langileek antzematen dituzten tratu txar adierazleak erakusten ditu.
- ✓ Etxeetara egindako bisiten bitartez.
- ✓ Beste zerbitzu batzuetatik bideratuta: Osasun Zentroak, Ertzaintza edo hezkuntza zentroak, gehienbat.
- ✓ Hirugarren pertsona baten bidez lortutako informazioari esker: Gizarte Langileak informazioa eskuratzen du (OGZ-ko historiala, erabilitako bestelako baliabideak) eta emakumearekin kontaktuan jartzen ahalegintzen da (bere erabakiak eta erritmoa errespetatuz arriskua ez handitzeko).

## 2. Egoeraren balorazioa:

- **Larrialdiko** egoera bat baldin bada, *Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzuarekin (GLFZ) elkarlanean, berehalako erantzuna bermatuko da, esku hartze prozesuan zehar laguntasunaz gain, arriskua baretzen den bitartean edo lehen babes neurriak hartzen diren bitartean.*

Larrialdi egoera gisa ulertuko dira behin kasuaren berri izanda **berehalako erabaki** bat hartu eta ahalik eta bizkorren ekintzak gauzatu behar direnean, emakumeak bere segurtasun pertsonala arriskuan egon daitekeela onartzen duelako edo:

- Lesioen larritasunagatik edota eraso sexualagatik asistentzia sanitarioa behar duenean.
- Begi bistako lesioak dauzkanean (berdin dio onartzen duen edo ez bere bikotekide edo bikotekide ohi baten tratu txarren ondorio direla).

- Salaketa jartzen duenean edo jartzeko asmoa daukanean eta arriskua egon daitekeela uste denean momentuko langile teknikoaren aldetik.
- Bere kargu adingabeak dituen indarkeria honen eraginpean egoteko arriskuan daudenak.

**Berehalako asistentzia sanitarioa** behar den kasuetan ahal baldin bada biktimari Andoaingo Osasun Zentrora laguntzen zaio, edo bestela Ertzaintza izango da emakumeari lagunduko diona. Eraso sexual bat izan baldin bada, SOS Deiak-era deitzen da Donostia Unibertsitate Ospitalera eta GLFZ-etara lekualdatzeko eta zuzenean ospitalera eramateko, kasuaren larrialdia dela eta osasun zentrora heltzen denborarik ez galtzeko.

Biktimaren edo bere kargura dauden pertsonen segurtasun fisikoarekiko arriskua dagoen kasuetan, Hernaniko Komisariako Ertzaintzarekin harremanetan jarriko da Gizarte Zerbitzuetara bertaratu daitezten eta modu honetan bere segurtasuna bermatu dadin.

Egoerak hala eskatuko balu, gizarte langile batek biktimari Komisariara lagunduko dio.

- ❑ *Larrialdiko egoera bat **ez** bada, kasuaren balorazioa egiten da eta biktimarekin elkarlanean eta erakusten dituen beharizanen arabera babeserako eta esku hartze sozialerako ibilbide bat diseinatzen da, beharrezko baliabide municipal, foral eta autonomikoak aktibatuz.*

Emakumeari **salaketa** jartzeko aukera jakinarazten zaio, foru aholkularitza juridiko aurre prozesal errekurtsoren aukera ere bai, baina baita guzti honek suposatzen duen prozesua ere.

Prozedura ulertarazteko ahaleginak egin behar dira, eta horretarako behar adina elkarriketa egin daitezke eta adieraziz ez duela zertan berehalako erabakirik hartu.



### 3. Bideratzea eta koordinazioa:

Erreferentziako Gizarte Langilea baliabide eta zerbitzu municipal, foral edota autonomiko desberdinetara bideratzearen arduraduna izango da. Bideratze segida artatutako emakumearen aurretiazko onarpenaren<sup>8</sup> ondoren gauzatuko da.

#### **Zerbitzu autonomikoak:**

- Andoaingo Osasun Zentroa.
- Osasun Mentalaren Zentroa.
- Ertzaintza.

#### **Zerbitzu foralak:**

- Artatze sozio-juridikoko zerbitzu espezializatua.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen artatze psikologikoan espezializatutako zerbitzu forala<sup>9</sup>.
- Adingabeen artatze psikologikoan espezializatutako zerbitzu forala.
- Genero indarkeriaren biktimen Berehalako/Iarrialdiko Harrera Zentroa.

Aipatutako baliabideetara egindako bideratzek gehien bat telefono bidez egiten dira, eta beharrezkoa den kasuetan enkriptatutako informazioa posta elektronikoko bidez bidaliz edota aurrez aurreko bilera eginez.

Horrez gain, urtean zehar aldizkako bilerak egiten dira Osasun Zentroarekin, Osasun mentalarekin eta hezkuntza zentroekin; bertan, besteak beste, aipatutako zerbitzuek esku-hartu duten genero indarkeria kasuen analisisa gauzatzen da.

<sup>8</sup>Dokumentua: Datu pertsonalak lagatzeko adostasun akta (3. Eranskina).

<sup>9</sup> Aipatutako zerbitzuak erreferentziako Gizarte Langileari txostenak bidaltzen dizkio edozein aldaketa gertatzen denean edo emakumeak errekurtsoan bukatu duenean.

### **6.3. Ertzaintza eta Udaltzaingoaren arteko arreta, bideratze eta koordinazio prozedurak**

Andoaingo kasuak Hernaniko Ertzaintzaren Komisarian <sup>10</sup> lantzen dira, non Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeria (EI/GI) Unitatea dagoen, eta honek Andoainez gain Aduna, Alkiza, Asteasu, Astigarraga, Hernani, Larraul, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Billabona eta Zizurkilgo udalerrriak ere bere gain dauzka.

#### **1. Biktimei Ertzaintzak eskaintzen dizkion zerbitzuak:**

- Balizko larrialdiei artatzea.
- Babes aginduen eskaeren tramitazioa.
- Salaketak jasotzeko 24 orduko arreta zerbitzua.
- Arreta pertsonalizatuko zerbitzua.
- Telefono mugikorraren eskaintza (Bortxa), larrialdiko abisuetarako.
- Segurtasunerako neurri polizialak.

#### **2. Ertzaintzaren sarbideak:**

- Abisu edo telefono dei batengatik (biktimak berak edo hirugarren pertsona batek egingakoa) gertakarien lekura bertaratzen dira (normalean etxea).
- Emakumea komisariara joaten denean salaketa jartzera edo hirugarren pertsona batek salaketa jartzen duenean.
- Ofizio Judizial baten harreraren ondoren dagokion Epaitegitik eratorrita.
- Epaitegitik lesioen parte (Osakidetza) edo Babes Agindua bidalitakoan.

#### **3. Ertzaintzaren prozedurak:**

##### **- Salaketaren harrera:**

---

<sup>10</sup> 1. eranskinean EI/GI kasuen inguruan esparru multzoek betetzen dituzten funtzioak jasotzen dira.

Biktima egongo den egoera emozional berezi kontutan hartuz gauzatuko da, segurtasun klima bat sortzen ahaleginduz, leku eroso batean, pribatua, etenaldiak ekidingo dituen eta biktimaren intimitatea zainduko duena. Behin salaketa burututakoan, beronen kopia bat entregatuko zaio biktimari.

#### **- Bere eskubideei eta zerbitzuei buruko informazioa**

Emakumeari bere eskubideak jakinarazten zaizkio, horien artean abokatu batek aholkatuta egotea (Aholkularitza aurre prozesala, aholkularitza pertsonala izan daitekeena edo telefonoz) delarik, eta honek azalduko dio emakumeari salaketaren ondorioak, babes/urruntze neurriaren baldintzak eta hauek suposatzen dutena. Abokatu honen aurrean jaso behar da salaketa eta izapide polizialen prestaketa, ondoren dagokien Epaitegira tramitatuko direnak. Norbere burua babesteko neurriei buruz ere informatzen da, azalpenezko txosten bat eta *Bortxa* telefonoaren esleipenerako aukera ematen zaio, eta BLZ-ren bitartez Justizia Sailak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko aholkularitza ematen zaio, Andoaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan jaso dezakeen artatzeaz gain.

#### **- Babes aginduaren eskaera**

Salbuespenak salbuespen, babes agindua Epaitegira 24 ordu baino gehiagokoa ez den denbora-tarte batean tramitatuko da.

*Sexu erasoak*: Funtzionamendua berdina da (espedientea zabaltzea, atestatua...), baina ez zaio genero indarkeriagatik espedientea zabaltzen, sexu erasoagatik baizik, eta kasu guztietan emakumeari Donostiako Ospitalera lagunduko zaio.

#### **- Laguntzea**

Biktimaren laguntzea kasuz kasu aldatu egingo da.

Kasu guztietan, behin Hernaniko komisariatik ateratakoan, asistentzia sanitariorik behar ez badu behintzat, erasotzailearen atxilotetari ekin zaion edo ez kontuan hartu gabe emakumeari bere etxera edo berak proposatutako beste leku batera, Andoaingo Gizarte Zerbitzuetara, harrera etxe foralera, etab., laguntzen zaio.

Epaitegira laguntzea: Arrisku moderatutik<sup>11</sup> aurrera barne protokoloak emakumeari epaitegira laguntzeko derrigortasuna ezartzen du, honek ez duena alde batera uzten edozein modutara ere, oinarrizko arrisku maila baten aurrean laguntzea beharrezkoa ikusten bada egingo dela.

Biktimaren kargu seme-alabak daudenean, emakumea beraietaz kargutu ezin den denbora tartean emakumeak aukeratutako pertsonaren ardurapean jarriko dira edota senideekin; hau posiblea ez balitz, SFUS-ekin harremanetan jarriko da kargu egiteko.

Aipatutako lekualdatzeak ahal den heinean bereizgarri gabeko ibilgailuetan, kaleko jantzita eta sexu bereko agente batekin egingo dira.

#### **- Onespena**

Emakumeari bere onspena eskatuko zaio idatziz Ertzaintzari emandako datuak Gizarte Zerbitzuekin partekatzeke, biktima zerbitzu hauen erabilzailea ez den kasuetan.

#### **Biktimak sexu askatasunaren aurkako delituren bat sufritu badu azkenaldian**

- Asistentzia sanitarioa behar badu: Biktima artatzen duen Ertzaintzaren bitartekariak baloratuko du biktimaren trasladorako ambulanzia bat eskatu edota uniforme gabeko pertsonal polizialarekin poliziaren baliabide batean joan Ospitalera.

- Asistentzia sanitariorik behar ez badu: Ertzaintzaren bulegoetara trasladoa egin polizia baliabideren batekin uniforme gabeko pertsonal polizialarekin.

Salaketa jartzerako orduan abokatu espezializatuen aholkularitza eskainiko zaio.

---

<sup>11</sup> Lau arrisku maila daude: Oinarrizkoa (O), moderatua (M), altua (A) eta berezia (B). Eta beraien batera arrisku maila bakoitzeko derrigorrezko babes polizial neurri komun batzuk eta beste espezifiko batzuk.

#### 4. Koordinazioa eta bideratzea:

##### Udaltzaingoa

- Udaltzaingoak GI kasu bat jasotzen duen eta biktimak salaketa jarri nahi duen kasuetan Ertzaintzari bideratzen zaio. Egokitzen jotzen den kasuetan biktimari komisariara lagunduko zaio.
- Koordinazioa egunerokoa da: posta elektronikoz, bezperan beraien herrietan egon diren gertakarien inguruan. Larria bada, jakinarazpena berehalakoa da.
- Astero dagozkien Udaltzaingo guztiekin batzen dira eta informazioa helarazten diete: biktima eta erasotzailearen fitxa, urruntze aginduak, espediente berriak, babes aginduen jarraipenean hautemandako arazoak edota urruntze neurrien urraketak.
- Udaltzaingoari Ertzaintzaren Komisarian zuzenean jasotako urruntze aginduen berri emango zaio. Era berean Ertzaintzak daukan informazio guztia helaraziko dio<sup>12</sup>.

##### Osasun zerbitzuekin

- Donostiako Unibertsitate Ospitalearekin, eta lesio minimoen kasuan, Lehen Mailako Arreta Zentroak.

##### Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin

- Emakumeak baimena ematen badu Gizarte Zerbitzuei telefonoz emakumearen egoeraren berri azaltzen zaio.
- Biktimak onartu edo ez, Ertzaintzak beharrezko jarraipena egiten du, eskura eduki ahal dituen baliabideen berri emanez.

---

<sup>12</sup> Erasotzaileen kasuan, Ertzaintzak soilik argazkiak dauzka atxiloteta fitxa existitzen denean. Biktimen kasuan beraiek onespena emandakoan jaso ahal izango dituzte.

- o Biktimak eskaera ez badu onartzen, baina adingabeak badaude, Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie beraien babesaren bermatzeko minaren presuntzio printzipioan oinarrituz, indarkeria bizitzen egonagatik.

### **Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzuarekin (GLFZ)**

Larrialdi kasuetan eta Andoaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordutegitik kanpo.

### **Donostiako edo Tolosako Epaitegiarekin**

Laguntza eskaintzen da, baina emakumeak ez badu nahi, bere erabakia errespetatzen da.

## **6.4. Osasun zerbitzuetako artatze, bideratze eta koordinazio prozedurak**

Ondoren laburtzen diren prozedurek *Etxeko tratu txarrei eta emakumeen kontrako sexu indarkeriari buruzko protokolo sanitarioa*-ri (2008) egiten diete erreferentzia, honen helburua osasun zentro batera jotzen duten tratu txarren biktima diren emakumeei artatze sanitario integral bat egitea delarik, bai Andoaingo Osasun Zentrora, bai Asuncion Klinikara zein Donostiako Unibertsitate Ospitalera.

### **1. Genero indarkeria gertakariaren ezagutza eta biktimari artatzea**

- Langileek susmoa daukatenean emakumeak dauzkan lesioak etxeko indarkeriaren ondorio direla, baina emakumeak ez duenean adierazten modu esplizituan, tartean den pertsonal sanitarioaren esku geratzen da gertakariaren argipenean sakontzea, betiere pazientearekiko harremana lehenetsiz.

- Bere historia klinikoan zantzu edo oinarri nahikoa badaude edota berehalako esku hartze espezializatua behar duten lesioak badauzka, Andoaingo Osasun Zentroan bertan egingo da lehen balorazio bat lehen mailako arretako bere medikuak artatu dezan saiatuz, edo ezin bada, bere taldeko norbaitek.

Ondoren, egoerak eskatuz gero, anbulantzia bati deituko zaio eta Donostiako Unibertsitate Ospitalera edo Asuncion Klinikara (kasu bakoitzaren balorazioaren arabera osasun zentro batera edo bestera) bideratuko da, non asistentzia sanitarioa

eskainiko den dagokion jarduera terapeutiko plana martxan jarriz, Osakidetzako Arreta Protokoloaren arabera.

Biktimak ez badu nahi gertakariak salatu ezta Babes Agindurik eskatu ere, Justiziaren babes mekanismoak eskatzeko bide formala zertan datzan azalduko zaio (erasotzailearen urruntzea, babes poliziala). Hala ere, momentu horretatik aurrera prozesu juridiko bat martxan jartzen dela ere azalduko zaio, emakume askorentzako irteera dirudiena borroka berri baten hasiera bihurtzen delarik (probak, epaiketak, sententziak, etab.). Era berean, biktimari azalduko zaio langileak derrigortuta daudela Lege aldetik Epaitegia jakinaren gainean jartzera gertakari hauen inguruan.

## 2. Biktimak berriki gertatutako sexu eraso bat pairatu badu:

Berehalako tratamendu medikoa beharko luketen larritasun eta bizi arrisku kasuak salbu, Donostiako Unibertsitate Ospitalera edo Asuncion Klinikara trasladoa egiteko kudeaketak egingo dira, garbiketa eta arropa aldaketarik egin gabe.

- **SOS Deiak**-i deia anbulantzia bat eskatzeko ospitale edo klinikara berehalako trasladoa egiteko.
- **Donostiako Unibertsitate Ospitalera edo Asuncion Klinikara** (kasu bakoitzaren balorazioaren arabera osasun zentro batera edo bestera bideratuko da) deia artatze dispositiboa prestatu dezaten. Laguntzarako Larrialdietako Zerbitzu Foralaren laguntasun zerbitzua eskainiko da. Biktimak onartzen badu, zerbitzuarekin harremanetan jartzen da.
- Ospitalean ezarritako tratamenduarekin bat datorren eta dagokion jarraipena.

## 3. Bideratzea eta koordinazioa:

- ❑ **Biktimak onartzen badu**, informazioa Gizarte Zerbitzuei helarazten zaie harrera eta lan plana, zerbitzuen bideratzea eta kasuaren eraginpean dauden pertsona guztien jarraipena burutu dezaten. Era berean, beharrezkoa bada, Osasun Mentalera bideratuko da.
- ❑ **Biktimak ez badu onartzen**, osasun zerbitzutik beharrezko jarraipena egingo da, biktimak jo dezakeen baliabideei buruzko jakinarazpenak emanez.

Edonola ere historian erregistratzen da. Lesioen erregistroa dagoen kasuetan, Tolosako Epaitegira bidaliko dira edozein kasutan.

- ❑ **Biktimak** eskaintza **ez badu onartzen, baina adingabeak badaude**, Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie beraien segurtasuna bermatzeko minaren presuntzio printzipioan oinarrituz, indarkeria bizitzen egonagatik.

Bideratzeak artatutako emakumearen onespeneren <sup>13</sup> ondoren burutuko dira.

Gizarte Zerbitzuen eta osasun zentroyen arteko *kasu bakoitzaren jarraipena mediku ekipoaren* (medikua-erizaina) eta erreferentziako **gizarte langilearen** artean osatutako taldearen bidez egingo da.

Pertsonal sanitarioak dagokion ekintza jarraibidea hartuko du emakumearen intimitatea eta konfidentzialtasuna ahalik eta gehien bermatuko dituzten neurriak muturrera eramanez.

### **6.5. Hezkuntza zentroetako artatze, bideratze eta koordinazio prozedurak**


Hezkuntza zentroetan gerta daitezkeen indarkeria matxistak asko eta anitzak izan daitezkeela aintzat hartuz, ezinbestekoa izango da **lehen balorazio** bat egitea burutu beharreko jarduerak ezartzeko. Kasuaren larritasunaren arabera arretarako lehen neurriek zentrotik at dauden beste instantzia batzuen koordinazio beharra izan dezakete (Hezkuntza Ikuskaritza, Gizarte Zerbitzuak, Osasun Zerbitzuak).

Indarkeria matxista kasuren bat baldin badugu edo hainbat adierazleren bidez horren susmoa baldin badaukagu:

- Biktimak horren berri emanez gero
- Biktima ez den beste norbaitek kontaktzen baldin badigu
- Egintza zuzenean ikusiz gero
- Ikaslearen jarreran adierazleren bat sumatzen badugu
- Horretarako balio duen postontzian informazioa utzi baldin badute
- Zuzendaritzara posta elektronikoko bat bidali badute (bere jatorriaren anonimotua)
- Salaketa zentro kanpotik baldin badator (Ertzaintzatik, Osasun Zentroetatik, Ospitaletik, Gizarte Zerbitzuetatik...)
- Beste batzuk

<sup>13</sup> Eraskinen dokumentua: Datu pertsonalak lagatzeko adostasun akta (3. Eraskina).





### 1. Aurretiazko analisia eta larrialdiko esku hartze zehatzen planifikazioa:

Zuzendaritza taldeak egokienak edo trebeenak direla uste duen pertsoneri deituko die, kasu bakoitzerako beharrezko esku hartzea analizatu eta baloratzeko lan talde bat osatuz, eta eraso jasan duen ikaslearen berehalako segurtasuna bermatuko duten neurriak hartuko dira.

- Ikaslearen familiarekin harremanetan jarri, eta erasotzailea ere ikaslea baldin bada bere familiarekin ere bai, bere egoerari buruzko informazioa bildu ahal izateko.
- Informazioa osatu, alderatu eta analizatu.
- Hezkuntza Ikuskaritza, Lasarte-Oriako Berritzegunea eta Andoaingo Gizarte Zerbitzuak jakinaren gainean jarri kasuaren baloraziorako, eta delitua den kasuetan

Adingabeen Fiskaltzarekin edo Epaitegiarekin harremanetan jarri, erasotzailearen adinaren arabera.

- Hartutako neurrien Jarraipena eta Ebaluazioa.
- Lan Taldeak *Ekintza plan* bat garatu eta biktimaren familiari jakinarazi, eta baita erasotzailearen familiari ere ikastetxeko ikasle bat baldin bada.

**Biktimarekin batera babes ibilbidearen eta esku hartze sozialaren definizio bateratua:** Kasuaren balorazioa egiten da eta biktimarekin elkarlanean eta dauzkan beharizanen arabera, babes ibilbide eta esku hartze sozial bat diseinatzen da beharrezko baliabide municipal, foral eta autonomikoak aktibatuz.

## 2. Bideratzea eta koordinazioa:

### Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin

- Koordinazioa aholkulariaren figuraren bitartez egingo da, familia eremuan genero indarkeria pairatzen ari diren adingabeak daudela hautematen den kasuetan.
- Urtean hiru bilera egin ohi dira zerbitzu bien artean GZ-etan artatzen ari diren ikasleen kasuak lantzeko.

### Osasun Zentroekin - Pediatria Zerbitzuarekin

- Aldizka bilera orokor bat egiten da. Modu paraleloan urtean zehar Pediatria zerbitzuaren eta ikastetxe bakoitzaren artean ere egiten dira bilerak, kasuak modu indibidualean lantzeko helburuarekin.

### Ertzaintzarekin

- Bideratzea eta koordinazioa telefono eta posta elektronikoz bidez egiten da, Ertzaintzaren erreferentziako figura baten bidez ikastetxeekin komunikatzeko.
- Urruntze aginduaren urraketaren berri edukiz gero ikastetxeak Ertzaintzari jakinaraziko dio.

### **Urruntze Aginduen jakinarazpenak**

Ama-biktima artatzen ari den edozein zerbitzutatik ondorengoa esango zaie: emakumeari gomendatu diezaiotela bere eta bere seme-alaben segurtasunerako egokia deritzon zerbitzuari jakinaraztea bere bikotekidearen urruntze aginduaren berri, berarenganako urruntze agindua den soilik edo adingabeenganakoa ere baden zehaztuz, aginduaren ezaugarriak (distantzia eta iraunaldia) argitzearekin batera. Horrela, hezkuntza zentroek beharrezkoak diren arreta eta segurtasun neurriak ezartzeko.

**Adingabeak dauden kasuetan:** Adingabea biktima bada, gaiaren inguruan hartzen diren erabaki guztietan Europar Araudiaren gainetik bere interes goragokoa gailendu beharko da, eta beraz, beste zerbitzuei jakinarazi beharko zaie interes horren mesederako eta artatze integrala bermatzeko neurri egokiak har ditzaten.

## **6.6. Berdintasun Arloko prozedurak**

### **1. Arreta arloaren helburuak**

Berdintasun Arloak xedetzat dauka udalerrian berdintasun politikak bultzatzea eta indarkeria matxistaren aurkako prebentzio neurriak ezartzea.

Berak indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzeneko arreta emateko eginbeharra ez duen arren, berari dagokio berdintasun politikei jarraipena ematea; besteak beste, indarkeria matxistaren arloko jarduera politikei. Beraz, biktimei arreta hobe emateko balioko duten prozesu eta mekanismoak sustatzeko ardura ere badauka, esaterako protokolo hau.

#### **2.1 Indarkeria matxistaren egintza baten berri izatea**

Dena delakoagatik biktima bat Berdintasun Arlora gerturatuko balitz, harrera egingo litzaioke (eskatzen duenaren berri izateko), eta ondoren, Gizarte Zerbitzuetara bideratu; behar izanez gero bertara lagunduaz edo Gizarte Zerbitzuei jakinaraziaz

berehalako arreta behar duen biktima bat hurbilduko dela, edo presazko egoera ez baldin bada, berarentzako hitzordu bat eskatuaz.

Biktimak telefono bidez edo beste gai batzuekin zerikusia duen elkarrizketa batean ematen badu egoera honen berri, lehenbailehen hitzordu bat adostuko da eta harrera arestian aipatu den bezala gauzatuko da.

### **3. Erakundeen arteko Koordinazio Mahiaren ohiko eta ez-ohiko bileren koordinazioa**

Berdintasun Zerbitzuak Mahaiaren bilerak deitu, dinamizatu eta akta idatziko du. Deialdiak gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko ditu, eta ez-ohikoak (larrialdietakoak) egun bat lehenago; azken hauek Mahaiaren parte-hartzen duten edozein erakundek deitu ditzake.

### **4. Erakundeen arteko Koordinazio Mahiko bileretan lantzen diren gaien berri ematea Politika Batzordeari**

Berdintasuneko erantzuleak Koordinazio Mahiaren landutako gaien, adostutakoen eta abian jarri den protokolo honekin zerikusia duen edozeren berri emango die udalerriko politikariei.

### **5. Datuen bilketa eta analisia**

Berdintasuneko erantzuleak protokoloan parte hartzen duten zerbitzu eta erakunde ezberdinek bidalitako datuen analisia egingo du urtero. Halaber, Erakundeen arteko Koordinazio Mahiari aurkeztuko dion txosten bat prestatuko du, bertatik eratorritako ekintza edota neurriak eztabaidatu eta abian jartzeko.

### **6. Prozeduren eta arretaren ebaluazioa**

Bi urteko epealdian protokoloaren funtzionamenduaren eta arreta egoeraren ebaluazioa egingo da; eta hau Berdintasuneko arduradunaren esku egongo da.

## **7.- Jabekuntza prozesuetarako diseinu eta jarraipena**

Berdintasun Arloak Indarkeria matxistaren emakume bizirauleen jabekuntzarako neurrien diseinua, martxan jarri eta jarraipena egingo du. Jabekuntza Eskola eta honen inguruan sortu diren emakume taldeen bitartez tresnak eskainiko ditu, eta baita egindako ekintzen eta emaitzen jarraipen eta ebaluazioa.

## **8.- Puesta en marcha de medidas de reparación**

Berdintasun Saila neurri erreparatzaileen diseinu eta proposamenez arduratuko da. Neurri hauek emakume biktimen arreta hobetzeko neurriekin batera martxan jarriko dira. Gainera, inplikaturik dauden beste agenteekin edo indarkeria matxistaren emakume biziraule eta biktimekin batera jarriko ditu martxan aipatutako neurriak.

## **7. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO MEKANISMOAK**

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko (Protokolo honen edukiak betetzen direla bermatzeko helburuarekin), protokoloa bera garatzeko sortu den lan taldearekin jarraituko da, Erakundeen arteko Koordinazio Mahaia osatuaz.

### **7.1. Kideak**

Mahai hau Andoainen arreta ematen duten erakundeetako langile teknikariek osatuko dute:

1. Berdintasun Zerbitzua
2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
3. Udaltzaingoen arduraduna
4. Gazte Lokalaren arduradunak
5. Hernaniko Ertzaintza:
  - a. Ertzaintzako Genero Indarkeriaren Unitatearen arduraduna
  - b. Herritarren segurtasunerako Eragiketa Zuzendaritza
6. Osakidetza:
  - a. Lehen Mailako Arretako Unitatea
  - b. Osasun Zentroko erizaindegi Zuzendaritza

7. Andoaingo hezkuntza zentroak:
  - a. Leitzaran Institutua
  - b. Aita Larramendi Ikastola
  - c. Ondarreta ikastetxea
  - d. La Salle Berrozpe ikastetxea

## 7.2. Funtzioak

- Berdintasun Zerbitzuak urtero aurkezten dituen esku-hartzeei buruzko datu orokorrak aztertzea.
- Azterketa horretatik eratorritako proposamenekin txosten bat egitea eta dagokien instantziei bidaltzea, beharrezko ikusten diren baliabide eta zerbitzuak hobetu ahal izateko.
- Sinatzen duten erakundeek biktimen arretan egindako lanaren urteroko memoria bat egitea eta dagokien erakundeei esanguratsutzat jotzen diren ondorio eta balorazioak igortzea.
- Erakundeen arteko koordinazioaren arintasuna bermatzea.
- Protokolo honetan ez dauden eta berehalako erantzuna eskatzen duten aspektu operatiboari aurre egitea.
- Protokoloa martxan jartzearen ondorioz sortutako edozein arazo konpontzea.

Beharrezkoa baldin bada, komisio honek kanpo aholkularitza bat izan dezake funtzio hauek garatzeko.

### 7.3. Aldizkakotasuna eta deialdia

- Protokoloa martxan jartzen den unetik aurrera koordinazio mahia **urtean birritan** batuko da. Lehen urtearen ostean maiztasun honen berrikuspena eta balorazioa egingo da.
- Mahia behar bezain beste aldiz batuko da ezohiko bileretan.
- Gutxienez 15 egun lehenago Berdintasun Zerbitzuak ohiko bilerak deituko ditu idatzi baten bitartez. Berdintasun teknikaria deialdien, dinamizazioaren eta aktak jasotzearen arduraduna izango da.
- Taldeko edozein partaidek larrialdiko ezohiko bilerak deitu ahal izango ditu, egun bateko tartearekin.

## 1. ERANSKINA: FORU ETA ERKIDEGOKO BALIABIDEAK

### ▪ **24 ordutako telefono bidezko arreta zerbitzua: 900 840 111 (SATEVI)**

Zerbitzu honek estaldura autonomikoa dauka eta doakoa da. Eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Momentuko itzulpen zerbitzua dauka hainbat hizkuntzetan, eta entzuteko ezintasunak dituzten pertsonentzat.

- Bestetik, zerbitzu honek aholkularitza eta informazioa eskaintzen du edozein zalantza edo gai argitu nahi duten lagun, senideei edo emakume biktimari nola lagundu jakin nahi duen beste edozeini.
- Aldi berean, informazioa eskaintzen die arlo ezberdinetako profesionali.
- 016 zenbakiko (izaera estataleko telefonoko) deiak zenbaki honetara bideratzen dira. Ezinbestekoa da emakumeei jakinaraztea 016ak fakturan aztarnarik uzten ez duen arren, mugikorreko edota telefono finkoko deien erregistroan uzten duela; beraz, ezinbestekoa da deia ezabatzea egin ondoren.

### ▪ **Gipuzkoako Larrialdi Sozialetako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta. 943 224 411/ 112 (SOS Deiak)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak, etxeko indarkeriak eta sexu indarkeriak jasan dituzten emakumeak artatzeko zerbitzua dauka, eta balorazioa egin ondoren beharrezkoa ikusten bada harrera gunera lagunduko zaio; hau, emakumearen bizitokiaren arabera izango da. 24 ordutan dago zabalik urte osoan.

### ▪ **Biktimaren Laguntzarako doako Zerbitzua Gipuzkoan (SAV). 900 100 928**

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Publikoaren eta Justiziaren Sailari dagokio.

Aurrez aurreko zerbitzu bat da eta alde zuzeneko hitzordu bidez funtzionatzen du.



- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila, Larrialdi Sozialen eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren emakumeen arretarako Saila. 943113176/ 943112572.**

Arreta (pertsonek zein kolektibo) sozio-juridikorako eta psikologikorako foru baliabideak koordinatzen ditu; egonaldi laburreko eta ertaineko estantziak, eta baita autonomia pisuak eta esku-hartze sozio-hezitzaileak ere.

“Urrats”, Larrialdirako Arreta Etxeak, genero indarkeriaren eta sexu erasoen ondorioz beren etxea utzi behar izan duten emakumeei (eta euren menpeko familiei) harrera eskaintzen die Gipuzkoan. Baita Baliabide honetarako sarbidea Gipuzkoako Larrialdi Sozialetarako Foru Zerbitzuaren (943 224 411) edota Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez egiten da.

- **Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegia (Donostia). 943 004 383**

- Gipuzkoan gertatzen diren genero indarkeria kasuen prozedura izapide legalak tramitzatzen dituzte.

- **Mediku forensearen klinika (Donostia). 943 004 350**

- **Hernaniko Ertzaintza (112/ 943 53 88 40):**

Arloen askotariko funtzioak:

Herritarren Babesa	Ikerketa arloa	EI/GI arloa	Inteligentzia arloa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biktimen sorospena eta larrialdiko esku-hartzea</li> <li>• Erasotzailearekin jardutea</li> <li>• Hasierako arriskuaren balorazioa</li> <li>• Prebentzio jarduerak</li> <li>• EI/GI-rekin zerikusia duen edozein gertaeraren berri eman Udaltzaingoari.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prebentziorako izapideak: Salaketa, babes agindua, atestaturak, berehalako epaiketa.</li> <li>• Dauden laguntza baliabideei buruz aholkatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrisku mailaren jarduketak</li> <li>• Biktima autobabes neurrietan formatzea</li> <li>• Aldizka biktimari deitzea</li> <li>• Ausazko bisitak</li> <li>• Biktima eta erasotzailea elkarrizketatzea</li> <li>• Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea eta informazioa partekatzea</li> <li>• Prebentzioaren plangintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaltzainek koordinatzea eta biktimaren, erasotzailearen eta Epaitegiek emandako babes neurrien informazioa partekatzea</li> </ul>

## 2. ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA INFORMATZEKO AKTA. ERTZAINZA

ERTZAINZA	IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA INFORMATZEKO AKTA
EI/GI Espedientea: _____	
Anderea/Jauna: _____ _____,'	
NAN/ Pasaporte / Egoitza baimen / Identifikatzeko beste agiri zenbakia duena: _____ _____,'	
Izaera pertsonaleko datuen babeserako arauak ezarritako aurreikuspenekin eta supostuekin bat eginez, Akta honen bitartez	
1. Datu pertsonalak eta espedienteari lotutako informazioa:	
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Polizia kidegoen esku jarri ahalko direla, beharrezkoa izanez gero, polizia-eremuan baino ez erabiltzeko eta ezar daitezkeen babes neurriak eraginkor bihurtu ahal izateko</li></ul>	
2. Era berean, aipatutakoak baimena eman du datuak eta beharrezkoa den informazioa	
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Eusko Jaurlaritzako Emakunderi jakinarazteko, datu horiek beharrezkoak baldin badira aginduta dauzkan zeregin eta eskumenak betetzeko –gogobetetasunari buruzko inkestak egin ahalko dira biktimei aintzatetsi zaizkien eskubideak betetzen diren egiaztatu ahal izateko-; hori guztia, genero indarkeriaren biktimeizako arretaren kudeaketa integralari erantzun efikaza emateko</li></ul>	
BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> (markatu dagokiona)	
Data:	Sinadura:

### 3. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUN AKTA CESION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

<b>Izen –abizenak</b> Nombre-apellidos	
<b>NAN - Pasaportea –Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat</b>  DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	

**Legezko ordezkaria edo arduraduna<sup>14</sup>** Representante legal o persona responsable

<b>Izen –abizenak</b> Nombre-apellidos	
<b>NAN - Pasaportea – Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat</b>  DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	
<b>Harreman mota</b> Tipo de relación	

<p>_____ informazio hau eman didatela jakinarazten dut:</p> <p>- Nik emandako datuak ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA ETA KOORDINAZIO PROTOKOLOA</p> <p>- INDARKERIA MATXISTA BIZI DITUZTEN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO</p> <p>izeneko fitxategian sartzeko dira, eta fitxategi horren titularra Udala da.</p> <p>- Horren guztiaren helburua da, zerbitzuen jarduera koordinatuz, niri eta nire ardurapean dauden pertsoneri arreta osoa ematea.</p> <p>- Informazio hau baliagarria izango da datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak sortzeko, eta ikerketarako zein estatistiketarako erabiliko dute.</p>	<p>Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por _____ de que :</p> <p>-Los datos personales proporcionados se incorporarán a un fichero denominado PROTOCOLO DE ACTUACIÓN Y COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL</p> <p>PARA LA MEJORA EN LA ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS QUE ENFRENTAN VIOLENCIA MACHISTA cuya titularidad es del Ayuntamiento.</p> <p>- La finalidad es prestarme una atención integral, a mí y a las personas que de</p>
--	--

<sup>14</sup> Beharrezkoa denean bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario

<p>Eskubidea dut:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Hemen agertzen diren datu batzuk nahiz guztiak erabiltzeko baimena ez emateko.</li></ul> <p>Baimena edo adostasuna ez emateak ekar ditzakeen ondorioak zeintzuk diren azaldu didate.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Andoaingo Udalean datu hauek ikusteko, aldatzeko, baimena kentzeko eta ezadostasuna adierazteko.</li></ul> <p>Horrenbestez, libreki nire adostasuna ematen dut Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki.</p> <p>Andoainen, 201 ko.....ean</p> <p><b>Sinadura/Firma</b></p>	<p>mí dependen, coordinando la actuación de los distintos servicios existentes.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación.</li></ul> <p>Así mismo, tengo derecho:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial. Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.</li><li>- A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Andoain.</li></ul> <p>Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y el Reglamento General Europeo de Protección de Datos.</p> <p>En Andoain, a .....de 201</p>
---	--

<p>Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datuak markatutako erakundeei lagatzea baimentzen dut:</p> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Andoaingo Udaleko Zerbitzuak</li><li><input type="checkbox"/> Andoaingo ikastetxeak</li><li><input type="checkbox"/> Osasuna (Osakidetza)</li></ul>	<p>Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:</p> <ul style="list-style-type: none"><li><input type="checkbox"/> Servicios Sociales de Andoain</li><li><input type="checkbox"/> Centros educativos Andoain</li><li><input type="checkbox"/> Salud (Osakidetza)</li></ul>
---	--

<input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritza Segurtasuna (Ertzaintza)	<input type="checkbox"/> Gobierno Vasco Seguridad (Ertzaintza)
<input type="checkbox"/> Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politika Departamendua	<input type="checkbox"/> Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Política Social
<input type="checkbox"/> Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua	<input type="checkbox"/> Servicio Foral de Urgencias Sociales de Gipuzkoa
<input type="checkbox"/> SAV Gipuzkoa	<input type="checkbox"/> SAV Gipuzkoa
<input type="checkbox"/> Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia (Donostia)/Instrukzio auzitegia	<input type="checkbox"/> Juzgado de Violencia sobre la mujer (Donostia)/Juzgado de Instrucción
<input type="checkbox"/> Enplegua (Lanbide)	<input type="checkbox"/> Empleo (Lanbide)
<input type="checkbox"/> Berdintasuna (Emakunde)	<input type="checkbox"/> Igualdad (Emakunde)
<input type="checkbox"/> Arartekoa	<input type="checkbox"/> Ararteko
<input type="checkbox"/> _____harrera-etxea	<input type="checkbox"/> Casa de acogida de_____
<input type="checkbox"/> Zerbitzu juridikoa	<input type="checkbox"/> Servicio jurídico
<input type="checkbox"/> Zerbitzu psikologikoa	<input type="checkbox"/> Servicio psicológico
<input type="checkbox"/> Aldundiko Haurren zerbitzua	<input type="checkbox"/> Servicio de infancia foral
<input type="checkbox"/> SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa	<input type="checkbox"/> SEPE Servicio Público de Empleo
<input type="checkbox"/> _____elkartea	<input type="checkbox"/> Asociación_____
<input type="checkbox"/> _____abokatu	<input type="checkbox"/> Abogada/o_____
<input type="checkbox"/> Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)_____	<input type="checkbox"/> Otros servicios (identificar expresamente)_____

**BAIMEN INFORMATUA ADINGABEAK  
EGONEZ GERO**

Nire alaba/semea 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatu erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helbururako tratatzea baimentzen dut.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura.

Lagundu duen pertsonaren identitatea eta sinadura bertaratzeko zioa jasota utziz.

**CONSENTIMIENTO INFORMADO EN  
CASO DE PRESENCIA DE MENORES**

Siendo mi hija/hijo menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, firmo la presente.

Fecha y firma de la mujer.

Identidad y firma de la persona que le acompaña dejando constancia del motivo de su asistencia.